

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakaria Nafarroako indar politikoekin bilduko da Hitzarmena elkarrekin defendatzeko

"Elkartasunerako tresna bat eta erantzukizuneko ariketa bat" dela adierazi du

Miércoles, 07 de octubre de 2015

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek iragarri du Foru Parlamentuko taldeetako bozeramaileekin bilduko dela Hitzarmen Ekonomikoa elkarrekin eta argi defendatzeko; hala, elkartasunerako tresna bat eta erantzukizuneko ariketa bat dela adierazi du.

Gaurko Gobernuo bilkuraren ondoren egindako agerraldian, Barkos Lehendakariak esan du 2008. urtetik aurrera Nafarroak Espainiako diru-kutxari egindako ekarpena ehun milioi baino gehiago handitu dela, 480tik 590era; hau da, Foru Komunitateko diru-sarreren % 18 baino gehiago. Alde horretatik, Cristóbal Montorok zuzentzen duen ministerioak egindako "eraso birzentralizatzailea" salatu du.

Horri buruz, Uxue Barkosek adierazi du autonomia erkidego batzuk bizi duten finantza-gabeziaren arazoak ez dutela zerikusirik zenbaitek Hitzarmenari lotzen dioten ustezko elkartasun ezarekin; Nafarroak, gaur egun, orain arte baino ahots ozenago eta irmoagoa duela defendatu du Hitzarmena babesteko garaian.



Nafarroako Jauregiko fatxada nagusia.